

1978 - II - 24

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978ko Otsailaren 24an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru dela, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Lojendio, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, P. Charritton, J. A. Etxebarría, J. Fdz. Setien, X. Garmendia, J. Intxausti, M. Lasa, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, L. M. Mujika, J. A. Retolaza, I. Sarasola, J. M. Torrealday, M. Ugalde, P. Uribarren, M. Zarate, eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko eta Urtarrileko batzar agiriak onartu dira.

a) HARREMANAK:

Liburuzainak hartu diren liburu eta lanen separaten berri eman du, eta emaile diren P. Irizar, J. A. Etxebarría, L. Mitxelena eta J. San Martin euskaltzaindikoez gainera, A. Manzanares, J. M. Martín Retana, L. Baraiazarra, M. M. Zubiaga eta Gero argitaldariari eskerrak ematea erabaki da.

d) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Bilboko Aurrezki Kutxak bere kontseilaritzarako Euskaltzaindiko ordezkaria eskatu du, eta A. Irigoyen izendatu da kontseilari eta J. J. Zearreta ordezko.

C. Santamaria Euskalerriko Kontseilu Nagusiko izendatu dutenez, *Educación* hitzak euskaraz nola behar duen eskatzen du. *Hezkuntza* aurkitu da erarik jatorrentzat.

Gobernuaren Hezkuntza Ministeriotik euskara eskoletan erakusteko plangintzak ikusteko deia izan dugu eta Ikastola Federazioekin bilkurak egin dira gai hontaz.

Hazparnen apirilaren 16an euskararen eguna izanen da Pierre Broussain zenaren ohorez. Hango 9,30 orenetan mezarekin hasiko da. P. Larzabalek eginen du predikua, eta meza ondotik Herriko Etxean mintzaldiak, hauzapezaren agurrezko hitzak eta J. Haritschelhar Broussain eus-

kaldun eta euskaltzale gaiari loturik. "Euskararen Estudio Sociolinguistikoaren" Iparraldeko aurkezpena ere bertan egingo da.

Apirilaren 28an, San Prudentzio egunez, Gasteizen, Arabako Foru Diputazioko jauregian, E. Knörr jaunak egingo du bere sarrera hitzaldia.

Datorren iraileko biltzarerako izendatua zen estadistika batzordea bildu da eta bere lanaren plangintza eratu du.

Bitartean, euskaltzainak eta Euskal Udalen Izendegiaren batzordekoek bildurik, iritsi diren oharrak aztertu dituzte, Mitxelenak gai honetaz egin duen txostena ere irakurriz. Izendegia, orokorki onartua gelditzen da, eta bereziki falta diren xehetasun eta udal izenak huts hutsean batzordearen esku ohargileekin batera utzirik.

d) ZENBAIT ERDERATIKAKO ERAGIN EUSKAL SISTEMAN HISTORIAN ZEHAR:

A. Irigoyenen txostena, euskal sistemen historian erderatikako eraginez egin dituen ikerketen berri emanez. Bere ikerketa aintzinako idazle zahar, errefracu eta kantetan oinarritzen da.

e) EUSKALERRIKO KONTSEILU NAGUSIARI EUSKARAREN ALDEKO PLANGINTZA BATEN PROPOSAMENA:

J. San Martinen txostena, euskara indartzeko eta zabaltzeko plangintza orokor baten proposamena egin, plangintza eskaini eta hau aurrera eramateko beharrezko den laguntza eskatu. Honetarako, bi batzorde izendatzea eskatzen du, batzorde tekniko bat administrazio ofizialerako hiztegia egingo duena eta euskararen zabalkundea estudiantuko duena.

Bukaeran, Hernaniko Udalari eskerrak ematea erabaki da, Agustin Pascual Iturriagaren omenaldirako eman zigun laguntzagatik.

Bestalde, euskaltzainburuaren eskariz, batzarkideen zorionak emateko Karlos Santamaria euskaltzain laguntzaileari Euskalerriko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza Kontseiluko buru izendatua izan delako.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN